

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Yořařla 'ren 28 'an.**

Auřeko batzařaldiko euskaltzain berak datoz eta urgazletatik batez.

Araudiak aginizen duanez otoitza egin da.

1. Azkue jaunak euskal-esakerak (modismos), berak bilduak irakuři ditu.

2. Batzařaldi ontan geundela, Eusko-lkaskuntza' ko gelan, Juan Karlos Geřa jauna sartu da. Altxa dira euskaltzain guziak ta esku eman ta agur egin diote. Alkia eman zaio. Azkue'k jařaitu du bere lana ta orixe bukatu duenean, besterik izan ez ta otoitzez amaitu da batzařaldi au.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Ořilaren 28 'an.**

Azkue maipuru dala euskaltzain abek agertu dira : Kanpion, Urkijo, Landeřetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Otoitzez asi da batzařaldia.

1. Ařa Intza'k iragartzen digu : Iruņa'ko Gotzai jauna alegintzen dala Euskeraren alde. Baziran apaiz batzuek, erderaz itzaldiak egiten zituztenak, euskaldun osoak beren eleiztar ta entzuleak izanik. Auxe zirao kendu du Gotzai jaunak ta bere agindu zořotzez ez dute apaiz oiek auřerantzean erdratzko itzaldirik

egingo, euskerazkoak baño. Pozik entzun du Euskaltzaindiak.

2. Aita Olabide'k dio : Barbier jaunak Bayona'ko *Gure Herria*'n idatzi dituen ipuiak, pīlan argitaratu bear lirakela. Azkue'k erantzun dio berak ere badituela ipui politak argitaragarī. Gipuzkoeraz jaři litezkela ipui abek, bañan alkarizketak bizkai-euskalkiz lagata. Ez da ezer erabaki.

3. Aita Intza'k galdetzen dio Euskaltzaindiari : Aurtingo Napar-euskal-jaiak non egin litezken. Berak ez du lan aben ardurarik artu nai, bakařik orainartean bezala ibiltzekotan. Ez du bere ordez ibili litekeanik idoro; ta Euskaltzaindiak erantzun lezaioke zer egin bear dan. Asko itz-egin ondoren, ez da ezer erabaki.

4. Aita Intza'k berak irakuři digu lan bat: *Irakasleak eta euskera*. Euskaltzaindiak gogo aundiz entzun dio.

5. Aita onek berak dio : Lizaso'n, Napařoa'n, esate baterako, alkate, Sekretario ta beste eři-arazodunak erderaz itz egiten dutela gazteen eredu txar-erako : Galdetzen dio Euskaltzaindiari : zerbait eskari egin ote lizaioken Napařoa'ko Aldundiari, eři-arazodunak bear arazteko euskeraz mintzatzen. Euskaltzaindiak egingo dio Aldundiari ařen ori.

6. Ikastoletarako liburutzaz luze itz egin da. Euskaltzaindiak dakus : badirala naiko liburu oraiñarteko bearitasunari erantzuteko. Begiratu bear dana auxe da : *Euskaleřiko edesti* laburtxo baten ardura. Kanpion eta Urkijo jaunak eman digute beren elburua gai ontan, esanik : gaitz-xamara litzakela *Euskaleřiko*

edesti laburtxo ori idaztea, gure edestian, ez dalako, uste ain éreza, éri-guzien gertapen-batasuna. Uréngo Batzañaldien batean arduragoz ikutuko da gai au ta orduarte bego erabaki gabe.

7. Eguskitza jaunak lan gain-gañeko bat irakurí digu : Azkue'ren *Morfología*'ri oarpenak. Erabili ditu: *declinación, subfijación, naturaleza de nuestra aglutinación; examen de la terminación tu-du de los nombres verbales euskéricos con relación de supino y pretérito latinos* tum-tu-tus, ta, tum.

Oso gogoz entzun dizkagu óren gai eder ta goienak.

Ta beste erizkizun batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batzañaldi au.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,
1925 'ko Oñila 'ren 29 'an.**

Len aipatzen diran euskaltzain berak daude alkie-tan, Azkue maipuru dala.

1. Aita Intza'k dio : Ardura biziz asi bear dala Iztegirako itz beñi bíla. Baietz erantzun zaio.

2. Azkue jaunak Euskal-esakerak (modismos) irakurí ditu ta píla galanta noski.

Ta beste gairik izan ezta, otoitzez amaitu da ba-tzañaldi au.
